

Juan San Martinen funtsarekin batera, XX. mendeko lekukotasuna bereganatu du KMk

Gipuzkoako Foru Aldundiak Juan San Martinen kultur funtsa erosi egin du. Guztira, liburu, eskuizkribu, argazki eta beste kontuan hartuta, 18.000 ale dira, euskaltzain eibartarraren izaera polifazetikoaren isla. Izan ere, artea, hizkuntza, etnografia, natura... den-dena interesatzen omen zitzaion San Martin sarri «todoterreno» gisa kontsideratua izan zenari. Oro har, hala ere, bere funtsean gailentzen diren gaiek euskal kulturarekin dute zerikusirik. Ikuspegi horretatik, San Martinena orain arte esku pribatuetan izan diren artxibo guztietatik aberatsena dela nabarmendu zuen atzo Joxe Joan Gonzalez Txabarri ahaldun nagusiak.

DONOSTIA

Iazko maiatzean hil zen Juan San Martin, eta haren senideak Mari Paz Ibeas emaztea eta Oier eta Unai semeak prentsaurrekoan agertu ziren atzo, Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako ahaldun nagusiarekin eta Imanol Agote Kulturako foru zuzendari orokorrarekin batean, euskaltzain eibartarra zenaren funtsa, hemendik aurrera, Koldo Mitxelenaren esku geratuko dela iragartzeko. Guztira liburu, eskuizkribu, argazki eta beste kontuan hartuta, 18.000 dokumentu inguru dira.

«Aitak, zeukan gaitza izanda ere, ahal izan zuen arte, behintzat, lanean jardun zuen», esan zuen atzo Oier San Martin senideen izenean hitz egin zuenak. «Lan batzuk gaineratu zuen bukatu gabe utzi zituen; aspaldiko beste batzuk, berriz, errebisatzen ari zen. Baina batez ere material asko zeukan bilduta. Eta pentsatu genuen hori guztia, etxean gorde beharrean, erakunderen baten eskuetan jarri behar genuela, beste batzuek lan egiten jarraitzeko interesgarria zelako». Izan ere, horixe da sanmartindarrek Foru Aldundiari jarri omen dioten baldintza bakarrenetakoa; aitaren lanaren jarraipena ahalbidetzea, alegia. «Funts bizia izan dadila nahi dugu, erabil dadila», esan zuen Oierrek.

Juan San Martinek bizitza osoan eginiko sormen eta bilketa lan eskerga dagoeneko Foru Aldundiaren esku dagoela nabarmendu zuen Joxe Joan Gonzalez Txabarrik, eta erakutsitako konfiantza eskertu zion familiari. «Juanek euskal gizarteari egindako beste zerbitzu bat da, eta seguru asko ez da azkena izango», gehitu zuen ahaldun nagusiak.

«Askok esan izan dute, kariño handiarekin esan ere, Juan San Martin XX. mendeko euskal kulturaren 'todoterreno'a izan zela», gogorarazi zuen. «Todoterreno» hori XX. mendearen bigarren zatiko euskal kulturaren lekuko aparta izan zen, eta lekukotasun hori bildu zuen funtsean ezin hobeto islatuta geratu da. «Funtsa ikusita, argi eta garbi ikus daiteke nolakoa izan den Euskal Herriko kultura XX. mendearen bigarren zatian», esan zuen Joxe Joan Gonzalez Txabarrik.

Euskal kulturaren ikuspegitik, San Martinena artxibo partikularrik aberatsena dela ere nabarmendu zuen.

Osagarriak

«Ez dakit funts handia den, baina berezia, bai, eta, batez ere, Aldundiak dituen beste hainbat funtsen osagarria», esan zuen Oier San Martinek. Izan ere, hizkuntz eta literatur materialak guztiz bat etor daitezke euskaltzain eibartarrak hain ongi ezagutzen zuen Urkixo funtsarekin; bertsolaritzari buruzkoak, Antonio Zavalarenarekin; eta mendikoak, Xebe Peñarenarekin. «Funts horiek nabarmen aberastera datoz San Martinen materialak», nabarmendu zuen Imanol Agote Kulturako foru zuzendariak. -

«Todoterreno» baten interes zabalen isla

Juan San Martinen funtsak, batez beste, 18.000 dokumentu ditu. Euskarriei begiratuta, lau atal nagusi bereiz daitezke.

Liburutegia - 10.000 titulu baino gehiago biltzen ditu. Gehientsuenak (%90) XX. mendekoak dira, baina XIX., XVIII. eta are XVII. mendeetakoak ere badira. Guztien artean badago bitxikeriarik. Esate baterako, 1698ko “El apóstol de las Indias, nuevas gentes, San Francisco Xavier de la Compañía de Jesús”, edo 1916an Tolosan argitaratutako Aita Kardaberazen “Jesusen esku liburua”. Halaber, 50-60ko hamarkadetan Euskal Herrian eta Ameriketara argitaratu zituzten eta zabalkunde motza izan zuten hainbat liburu aurki daitezke.

Eskuizkribuak - 3.000 inguru dira. Horietako askok Gipuzkoako hainbat udalerritako azterketa linguistiko, antropologiko eta literarioekin dute zerikusirik. Horrez gain, Juan San Martinen poema liburuen jatorrizko izkribuak daude. Izan ere, San Martin, “Otsalar” ezizenekoa, euskal poesiaren berritzaileetakoa izan zen. Baina eibartarrak gorde zituen jatorrizko testu bakarrak ez dira bereak. Hor daude Lekuona, Mikel Lasa, Xabier Lete, Joxe Azurmendi eta beste hainbat egilerenak ere.

Argazkiak - Gehienbat 1959tik 80ko hamarkada bitartean egindako argazkiak dira. San Martin mendizale amorratu eta euskal alpinismoaren aitzindarietakoa bat izan zen. Funtsean, oro har, bere zaletasun horren lekuko diren dokumentu ugari topa daiteke, eta beharbada bereziki argazkien artean.

Audio artxiboa - Euskara tradizionalaren lekukotasunak dira... amari egin zizkion grabazioak, ipuinak, bertsolariak...